



begoñazpi
ikastola

2020/2021

Hezkuntza Ez-Formaleko Programa





Euskal Dantzak

Helburuak

Ikastolako Misioak adierazten dauanez, ezinbestekoa da Euskal Kulturaren hedapena eta zer esanik ez, honen adierazgarri diran Euskal Dantzak. Jarduera honen bidez, ikasleek gure kulturaren eta identitatearen sakontzen dabenean, gorputz adierazpena eta erritmoa landuko dabe.

Musikaz eta mugimenduz garatu eta aztertuko dira emozioen adierazpena eta ikaslearen sentimenduak.

Dantzen bidez, gure identitatea garatuko dogu. Beti be, gure kultura hedatu, ezagutarazi eta aberasteko konpromisoa hartuz.

Informazio erabilgarria

Dantza-eskoletarako erropa eta zapata erosoak jantzi beharko dira.

Izen-emote kopurua kontuan izanik, ordutegian aldaketak egon daitezke. Ahal dan neurrian, kontuan hartuko da ikasle bakoitzaren egoera.

Alardeei buruzko informazioa

- Ekitaldietara joateko izen-emotea internet bidez egingo da. Zirkularrak plataforman eta Twitterren (@Begoazpidantza) jarriko dira ikusgai.
- Dantza-ekitaldietara dantza-jantziak jantzita joan beharko da, salbuespenak salbuespen.
- Dantzariak, alde zurretik baietza emon eta alardeetara joaterik ez badau, twitter edo emailez jakinarazi beharko dau. Alardeetara baietza emon barik joanez gero, ez da dantzatzea bermatuko.
- Ekitaldia izango dan lekuan geratuko gara zuzenean, arinago ez gara ikastolan geratuko.

Jantziei buruzko informazioa

NESKAK

LEHEN HEZKUNTZA: 1., 2., 3. eta 4.maila
Begoñazpi Ikastolako jantzia, azpiko gona, ardi-lanazko mediak, eta narruzko abarkak.
Jantzia urrian erosi ahalgo da, prezioa gitxi gorabehera 75€ izango da.

LEHEN HEZKUNTZA: 5., 6.maila eta DBH
Abarkak eta azpiko gona. Jantziak Ikastolak itziko deusez.
Ekainean, jantzia garbi bueltatu beharko dabe Ikastolara.

MUTILAK

DANAK
Praka eta alkandora zuria, txapel gorria eta zinta gorridun abarka zuriak.



► Bideoa ikusi

LEHEN HEZKUNTZA

1. - 2. - 3. - 4. - 5. - 6. maila
EUSKAL DANTZAK

► Bideoa ikusi

DBH

1. - 2. - 3. - 4. maila
EUSKAL DANTZAK

Antzerkia ingelesez

Helburuak

Lehen Hezkuntzako hasierako urteetan antzerkia oso aberesgarria izan daiteke, batez be, ahozko adierazmena lantzeko, jende aurrean berba egiteko, beldurrei aurre egiteko, kontzentrazioa izateko eta testuak buruz ikasteko.

“Sketchez” eta obra laburren bidez, ikasleek aurretik esandakoak jorratuko dabez.

Informazio erabilgarria

- Gehien jota, hamabost ikasleko taldeak sortuko dira.
- Ikasturte amaieran Lehen Hezkuntzako aretoan, urte guztian landutakoaren antzezlan ikusteko aukera izango da. Horretarako, ikasleek beharko dabezan apaingarriak eta erropa ekarri behar izango dabe.

▶ Bideoa ikusi

LEHEN HEZKUNTZA
3. - 4. - 5. - 6. maila
ANTZERKIA INGELESEZ



Bertsolaritza

Helburuak

Jarduera honek ikasleen bat-bateko ahozko adierazmen eta hiztegi konpetentzia indartzeko xedea dau.

Horrez gain, aisialdian bertsozaletasuna bultzatzea eta bertsolaritza aisialdiko topagune izatea be badau helburu.

Informazio erabilgarria

- Eskaintza Lehen Hezkuntza 5. eta 6. mailako ikasleei ez ezik, Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleei be zuzendua dago.
- Jarduera honek astean ordu beteko saioa izango dau.
- Ikasturte guztian hainbat jarduera burutuko dira.



▶ Bideoa ikusi

LEHEN HEZKUNTZA

5. - 6. maila
BERTSOLARITZA

▶ Bideoa ikusi

DBH

1. - 2. maila
BERTSOLARITZA